

Ibarrako Udala

ADMINISTRARI ETA ADMINISTRARI LAGUNTZAILEEN LAN-POLTSA

A EREDUA

2018-10-18

1 ZER BILTZEN DA ESPAINIAKO 1978KO KONSTITUZIOAREN ATARIKO TITULUAN?

- 1a) Eskubide eta askatasun publikoak.
- 1b) Ordenamendu juridikoaren funtsezko baloreak eta Estatuaren funtsezko printzipioak.
- 1c) Estatuaren lurralde-antolaketa.
- 1d) Konstituzioaren erreformarako prozedura.

2 NOLAKO LEGEA DA EUSKAL HERRIKO AUTONOMIA ESTATUTUKO 3/1979 LEGEA?

- 2a) Lege organikoa.
- 2b) Lege armonizatzailea.
- 2c) Oinarriak arautzeko legea.
- 2d) Gorte Nagusietako lege arrunta.

3 HURRENGOETATIK ZEIN EZ DA ZUZENBIDEKO PRINTZIPIO OROKORRA?

- 3a) Berdintasun-printzipioa.
- 3b) Ekitate-printzipioa.
- 3c) Fede oneko printzipioa.
- 3d) Azkartasun-printzipioa.

4 NOIZ DUTE HERRITARREK ALEGAZIOAK EGIN ETA AGIRIAK AURKEZTEKO ESKUBIDEA?

- 4a) Prozeduraren edozein alditan, baina beti entzunaldiaren izapidea egin ondoren.
- 4b) Prozeduraren edozein alditan, baina beti jendaurrean jartzearen izapidea bete ondoren.
- 4c) Prozeduraren edozein alditan, baina beti jendaurrean jartzearen izapidea baino lehenago.
- 4d) Prozeduraren edozein alditan, baina beti entzunaldiaren izapidea baino lehenago.

5 ESKA AL DEZAKE PROZEDURAN DIHARDUEN ADMINISTRAZIOAK AURREZ BERAK DAUKAN AGIRIREN BAT BERARI AURKEZTERIK?

- 5a) Bai, edonoiz.
- 5b) Ez.
- 5c) Duela 15 urte baino lehenagotik badauka, orduan bakarrik.
- 5d) Duela 10 urte baino lehenagotik badauka, orduan bakarrik.

6 HERRI-ADMINISTRAZIOETAKO ERREGISTROEK ZEIN EGUNETAN ETA ZEIN ORDUTAN EGON BEHAR DUTE IREKITA?

- 6a) Administrazio guztietan egutegi eta ordutegi berak izango dituzte.
- 6b) Administrazio bakoitzak ezartzen ditu ordutegia eta egutegia, herritarrek agiriak aurkezteko duten eskubidea bermatuz.
- 6c) 30/1992 Legean daude ezarrita autonomia erkidegoetarako, baina toki-erakundeek bestelako irizpideak izan ditzakete.
- 6d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

7 ZEIN KASUTAN MOTIBATU BEHAR DIRA ADMINISTRAZIO-EGINTZAK?

- 7a) Eskubide subjektiboak edo bidezko interesak mugatzen dituzten administrazio-egintzetan.
- 7b) Aurreko jardueretatik edo organo aholkuemaileen irizpenetatik bereizten diren egintzetan.
- 7c) Presaz izapidetzeko (bideratzeko) edo epeak luzatzeko erabakietan.
- 7d) Aurreko denetan.



8 ADIERAZI EZAZU ONDORENGOETATIK ZEINETAN DEN APLIKAGARRIA 39/2015 LEGEA:

- 8a) Sektore publiko instituzionalean.
- 8b) Toki-administrazioa osatzen duten entitateetan.
- 8c) Unibertsitate publikoetan.
- 8d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

9 LEGEZ EDO EUROPAKO ARAUEZ BESTELAKORIK EZARRI EZEAN, EPEAK EGUNETAN ZEHAZTEN DIRENEAN...

- 9a) Naturalak direla ulertu behar da.
- 9b) Lanegunak direla ulertu behar da, larunbatak eta igandeak izan ezik.
- 9c) Lanegunak direla ulertu behar da, igandeak izan ezik.
- 9d) Lanegunak direla ulertu behar da, larunbatak, igandeak eta jaiegunak izan ezik.

10 ADMINISTRAZIO-PROZEDURAK ADMINISTRAZIOAREN KABUZ HASIKO DIRA:

- 10a) Beti ere, eskumena duen organoaren ekimenez.
- 10b) Eskumena duen organoaren erabakiz, beste organo batzuen eskabide arrazoituari erantzunez edo salaketa baten ondorioz.
- 10c) Edozein kasutan, jendaurreko informazio-epe baten ondorioz.
- 10d) Bakarrik eskumena duen organoaren erabakiz, bere ekimenez edo goragokoaren aginduz.

11 GORAKO ERREKURTSOA JARTZEKO EPEA ZENBATEKOA DA?

- 11a) Beti ere, hilabetekoa.
- 11b) Beti ere, bi hilabetekoa.
- 11c) Beti ere, hiru hilabetekoa.
- 11d) Hilabetekoa egintza adierazia denean, eta egintza adierazia ez bada hiru hilabetekoa.

12 ADMINISTRAZIO-BIDEA AMAITZEN DUTEN ADMINISTRAZIO-EGINTZEN AURKA ERREKURTSOA AURKEZ DAITEKE:

- 12a) Administrazioarekiko auzien jurisdikzioan bakar-bakarrik.
- 12b) Nahi izanez gero, berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke egintza eman zuen organoaren goragokoari, edo, bestela, zuzenean administrazioarekiko auzien jurisdikzioan.
- 12c) Berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke egintza eman zuen organoaren goragokoari, eta organo horrek ezesten baldin badu, zuzenean administrazioarekiko auzien jurisdikzioan.
- 12d) Nahi izanez gero, berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke egintza eman zuen organoari berari, edo, bestela, zuzenean administrazioarekiko auzien jurisdikzioan.

13 ZEINTZUK DIRA UDALEKO OSAGAIK?

- 13a) Lurraldea eta herritarrak.
- 13b) Lurraldea, herritarrak eta antolaketa.
- 13c) Udalerria, herritarrak eta udaletxea.
- 13d) Herritarrak, antolaketa eta eskumenak.

14 UDALERRI BAT BAINO GEHIAGOTAN BIZI DENAK ZEIN HERRIKO ERROLDAN INSKRIBATU BEHAR DU?

- 14a) Biztanle kopuru handiena duen herrian.
- 14b) Urtean zehar denbora gehien bizi den hartan.
- 14c) Edozeinetan.
- 14d) Ez da posible udalerrri batean baino gehiagotan bizitzea.

15 ESAN ZEIN DEN ERANTZUN OKERRA, ERROLDARI DAGOKIONEZ:

- 15a) Pertsona orok du bizi ohi den udalerriko erroldan izena emateko betebeharra.
- 15b) Udalerrri bateko bizilagunen datuak jasotzen dituen administrazio-erregistroa da errolda.
- 15c) Erroldako datuen ziurtagiriak agiri fede-emaitzat joko dira, nahiz eta agiri publikoak ez izan.
- 15d) Erroldan izena ematerakoan, beharrezkoa da eskolako zein ikasketetako ziurtagiri edo tituluari buruzko datua jasotzea.

16 NOREN ARDURA DA ERROLDA OSATZEA, MANTENTZEA, ERREBISATZEA ETA ZAIINTZEA?

- 16a) Estatuko gobernuarena.
- 16b) Foru-aldundiarena.
- 16c) Udalarena.
- 16d) Foru-aldundiarena eta udalarena, biena batera.

17 ZENBAT KIDE BERTARATU BEHAR DIRA UDALBATZA BALIOZKO ERAN OSATZEKO?

- 17a) Udalbatzaren legezko kideen 1/3, bestelako mugarik gabe.
- 17b) Kideen legezko kopuruaren erdia, beti ere idazkaria bertan badago.
- 17c) Kideen legezko kopuruaren erdia, beti ere alkatea bertan badago.
- 17d) Kideen legezko kopuruaren 1/3, baina ezin izango da 3 baino gutxiagokoa, eta bertan daudela udalburua eta idazkaria edo legez ordezkaten dituztenak.

18 UDALBATZA BERAREN MENPEKO ORGANO ETA ERAKUNDEEN ARTEAN SORTZEN DIREN ESKUMEN-GATAZKAK ZEINEK EBATZIKO DITU?

- 18a) Udalbatzak.
- 18b) Alkateak edo udalburuak.
- 18c) Tokiko Gobernu-Batzarrak.
- 18d) Udalbatzak edo alkateak, arazoa zein den arabera.

19 TOKIKO ORDENANTZAK EGITEKO PROZEDURARI DAGOKIONEZ ZUZENA DA BAI EZTATZEA:

- 19a) Ez dela beharrezkoa udalbatzak hasierako onarpena ematea.
- 19b) Beharrezko baldintza dela jendaurrean jakinarazteko eta interesdunei entzuteko 30 eguneko epea.
- 19c) Interesdunek 15 eguneko epea dutela, behin betiko onarpena eman aurretik, ordenantzaren proiektua inpugnatzeko.
- 19d) Udalbatzak hasierako onarpena eman baino lehen aurkeztu beharko direla erreklamazioak eta iradokizunak.

20 ZEINTZUK DIRA ZUZEN ZUZENEAN TOKI-ERAKUNDEEN ARDURAKO HELBURU PUBLIKOAK BETETZEKO IZENDATUTA DAUDEN ONDASUNAK?

- 20a) Herri-ondasunak.
- 20b) Erabilera publikoko ondasunak.
- 20c) Zerbitzu publikoko ondasunak.
- 20d) Ondare-ondasunak.

21 JABARI PUBLIKOKO ONDASUNEN ZEIN ERABILERA DAGO ADMINISTRAZIO-EMAKIDAPEAN?

- 21a) Erabilera arrunt orokorra.
- 21b) Erabilera arrunt berezia.
- 21c) Erabilera pribatiboa.
- 21d) c) eta d) erantzunak zuzenak dira.

22 NORK IZENPETU BEHAR DITU UDALBATZARREKO BILKURA-AGIRIAK?

- 22a) Alkateak eta idazkariak.
- 22b) Toki-erakundeko kide guztiek.
- 22c) Bilkurara joan ziren toki-erakundeko kideek.
- 22d) Proposatutako erabakiaren aldeko botoa eman zuten kideek.

23 OSOKO BILKURETAKO GAI ZERRENDA:

- 23a) Galdera-eskarien puntua sartu ahal izango da baina ez da beharrezkoa izango.
- 23b) Idazkaritzak ezarriko du, talde politikoen bozeramaile guztiekin hitz egin ondoren.
- 23c) Dagokion batzordeak adierazi ez dituen gaiak sartu ahal izango dira, presako arrazoiak tartean badira.
- 23d) Aparteko kasuetan baino ez da onartuko presa, eta alkatearen ekimenez soilik.

24 UDALETXEKO ERREGISTRO OROKORREKO LIBURUEI DAGOKIENEZ, LUZA DAITEZKE:

- 24a) Egiaztagiriak.
- 24b) Jakinarazpenak.
- 24c) Idazpenak.
- 24d) Ofizioak.

25 NORK SINATUKO DITU AGINTARIEI BIDALTZEN ZAIZKIEN JAKINARAZPENAK?

- 25a) Alkateak.
- 25b) Alkateak edo dagokion arloko eskuordeturiko zinegotziak.
- 25c) Idazkaritzako arduradunak.
- 25d) Idazkaritzako arduradunak, alkateak edo arloko eskuordeturiko zinegotziak.

26 ERREGISTROKO ARDURADUNAK, IZEN EMATEA EGIN ONDOREN, ...:

- 26a) Agiriak sailkatuko ditu.
- 26b) Bulegoz bulego banatuko ditu agiriak.
- 26c) a) eta b) erantzunak zuzenak dira.
- 26d) a) zein b) eginkizunak ez dagozkio erregistroko arduradunari; mandatari edo mendeko langile baten lanak dira.

27 ERROLDAREN DATUAK...

- 27a) Beste herri-administrazio batzuei utz dakizkieke, eskatzen badituzte.
- 27b) Estatistika ofizialak egiteko erabil daitezke.
- 27c) Edonola ere, besterenezinak dira.
- 27d) Lehenengo bi erantzunak zuzenak dira.

28 ATZERRITARRAK UDAL-ERROLDAN INSKRIBATUTA EGOTEAK:

- 28a) Legez bizi direla frogatuko du.
- 28b) Indarrean dagoen legeriak ematen dizkienak baino eskubide eta askatasun handiagoak esleituko dizkie.
- 28c) a) eta b) erantzunak zuzenak dira.
- 28d) a) eta b) erantzunak okerrak dira.

29 IZAERA PERTSONALEKO DATUAK, TRATATU AHAL IZATEKO, NOIZ JASO AHAL IZANGO DIRA?

- 29a) Egokiak direnean.
- 29b) Egoerari dagozkionak direnean.
- 29c) Intimitatearen eremuan eragozpenik sortzen ez dutenean.
- 29d) Erantzun zuzenak a) eta b) dira.

30 NOIZ EZEREZTUKO DIRA DATU PERTSONALAK?

- 30a) 12 hilabetera.
- 30b) 3 urtera.
- 30c) 5 urtera.
- 30d) Beharrezko edo egoki ez direnean.

31 SALBUESPEN GISA, ZEIN DATU GORDE DAITEZKE OSORIK?

- 31a) Balio historikoa dutenak.
- 31b) Balio estatistikoa dutenak.
- 31c) Balio zientifikoa dutenak.
- 31d) Erantzun guztiak zuzenak dira.



32 EUSKAL FUNTZIO PUBLIKOARI BURUZKO LEGEAREN ARABERA, BITARTEKO FUNTZIONARIOEN HAUTAPROBETAN...

- 32a) Ahalik eta bizkorren jokatzeko saiatu behar da; publikotasun-printzipioa alde batera utzi ahal izango da, baina gorde egin behar dira berdintasunarena, merezimenduarena eta gaitasunarena.
- 32b) Hautatutako pertsonen lanpostuaren baldintza guztiak bete behar dituzte, hizkuntza-eskakizunarena izan ezik, betekizun hori karrerako funtzionarioei bakarrik eska dakieke eta.
- 32c) Ahalik eta bizkorren jokatzeko saiatu behar da, baina gorde egin behar dira publikotasunaren, berdintasunaren, merezimenduaren eta gaitasunaren printzipioak.
- 32d) Lanpostuaren baldintzaren bat bete gabe utz daiteke, horretarako txosten arrazoitua eginda, baina inoiz ere ezin da alde batera utzi hizkuntza-eskakizunaren betekizuna.

33 LANGILE ERREGISTROA(K):

- 33a) Nahitaez egon behar du euskal administrazio publikoetan, 10 enplegatu baino gehiagorekin.
- 33b) Ez da nahitaezkoa baina komenigarria bai.
- 33c) Bertan jaso behar dira inskribatutako langileen administrazio-bizitzan eragina duten gorabehera guztiak.
- 33d) Erregelamendu bidez zehaztutako funtzionarioek bakarrik izango dute erregistroetarako irispidea, bertan egoten den informazioa dela-eta.

34 HERRI LANGILEAK HAUTATZEKO EPAIMAHAIKOAK HONELAKOAK IZANGO DIRA:

- 34a) Herri erakundearen sartzeko eskatzen diren ezagueren arlo bereko titulazioa eduki behar dute epaimahaikoek.
- 34b) Epaimahaiko guztien erdiak behintzat ikasketen maila bereko edo handiagoko titulazioa eduki behar dute.
- 34c) a) eta b) zuzenak dira.
- 34d) a) eta b) okerrak dira.

35 NOR DAGO GIZARTE SEGURANTZAKO KOTIZAZIOA ORDAINTZERA BEHARTUTA?

- 35a) Enpresaria.
- 35b) Langilea.
- 35c) Enpresaria eta langilea.
- 35d) Enpresaria eta langileaz gain, Estatuak zati bat ordainduko du.

36 KOTIZAZIOAREN BETEBEHARRAREN INGURUAN, ADIERAZI ONDORENGOETATIK ZEIN DEN ERANTZUN OKERRA:

- 36a) Langilea lana eskaintzen den hasten unean bertan sortuko da, probaldia barne.
- 36b) Langilea eszedentzian egon gabe, betebeharrak publikoak betetzen ari denean bertan behera geratuko da.
- 36c) Aldi baterako lanerako ezintasun egoeratan ere jarraituko du.
- 36d) Ugazaben itxieretan bertan behera geratuko da.

37 ZEIN DA ZUZENBIDE PUBLIKOKO DIRU-SARRERA?

- 37a) Estatuaren eta Autonomia Erkidegoen zergetako partaidetza.
- 37b) Prezio publiko gisa jasotakoak.
- 37c) Kreditu eragiketen emaitza.
- 37d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

38 ORDENANTZA FISKALEN BITARTEZ, UDALEK HONAKO HAU ARAUTZEN DUTE:

- 38a) Diru-laguntzak.
- 38b) Beren zergak.
- 38c) Euren eskumen-eremuetako isunak eta zigorrak.
- 38d) Zuzenbide pribatuko diru-sarrerak.

39 ZERK BEREIZTEN DU ORDENANTZA FISKALEN ARAUDIA GAINERAKO ORDENANTZEN ARAUDITIK?

- 39a) Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren sartzen dela indarrean.
- 39b) Onartzeko gehiengo ezberdina behar dela.
- 39c) Jendeari jakinarazteko epeak.
- 39d) Erreklamaziorik egiteko aukerarik ez izateak.

40 ORDENANTZA FISKALAK ONARTZEKO ERABAKIAK...

- 40a) Tributuak ezartzeko erabakien aldi berean hartu behar dira.
- 40b) Aurrekontu orokorrak onartzearekin batera hartuko dira.
- 40c) Beste edozein erabaki hartzeaz gain hartu ahal izango dira.
- 40d) Sei hilabeterik behin hartuko dira.

41 TOKIKO OGASUNAK ARAUTZEN DITUEN 39/88 LEGEAREN ARABERA, ZEIN DA "KONTRIBUZIO BEREZIEN" ZERGAGAIA?

- 41a) Zerbitzu publiko bat eskaintzea edo tokian tokiko aginpidepeko administrazio-jarduera bat egitea, subjektu pasiboaren ingurukoa bada edo bereziki hari eragiten edo mesede egiten badio.
- 41b) Dena delako erakundeak obra publiko batzuk egingo ditu edo tokiko zerbitzu publiko berriren bat jarri edo lehengoa zabaldu egingo du, eta, ondorioz, subjektu pasiboak irabaziren bat lortuko du edo beraren ondasunek lehen baino gehiago balioko dute, eta horixe da zergagaia.
- 41c) Aurreko bi erantzunak dira zuzenak.
- 41d) Ez dira zuzenak ez a) ez b) erantzunak.

42 TASAK TOKI-OGASUNEN BALIABIDEAK DIRA, ETA...

- 42a) Zuzenbide pribatuko diru-sarrerak dira.
- 42b) Tributu-mota bat dira.
- 42c) Prezio publiko gisa jasotako diru-sarrerak dira.
- 42d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

43 ZERGAK DIRU-SARRERA PUBLIKOAK DIRA. HAUEK DIRA ZERGEN EZAUGARRI GARRANTZITSUENAK...

- 43a) Zuzeneko lotura egotea ordaindutakoaren eta lortutako emaitzaren artean.
- 43b) Derrigorrezkoak izatea eta ordezeko ordainik ez izatea.
- 43c) Borondatezkoak izatea eta zuzeneko lotura egotea ordaindutakoaren eta lortutako emaitzaren artean.
- 43d) Derrigorrezkoak izatea eta zuzeneko lotura egotea ordaindutakoaren eta lortutako emaitzaren artean.

44 NOIZ ESKATU BEHAR DIRA PREZIO PUBLIKOAK?

- 44a) Jarduera administratiboaren eskaera legezko xedapenek behartuta egotean.
- 44b) Eskatutako zerbitzuak administratuaren bitzita sozial eta pribaturako ezinbestekoak direnean.
- 44c) Jarduera horiek sektore pribatuak egiten ez dituenean.
- 44d) Sektore pribatuak ere egiten dituenean eta borondatez eskatzen direnean.

45 TABERNA BATEKO MAHAIK ETA AULKIAK PLAZA BATETAN JARTZEAGATIK UDALETXEAK EZARRI DEZAKE:

- 45a) Zerga bat.
- 45b) Tasa bat.
- 45c) Kontribuzio berezi bat.
- 45d) Errekargu bat.

46 TOKI-ERAKUNDEEK URTERO PRESTATU ETA ONARTUKO DUTE AURREKONTUA, ZEINEAN HONAKO HAUEK JASOKO BAITIRA:

- 46a) Erakundearen aurrekontua.
- 46b) Erakundearen menpeko organismo autonomiadunen aurrekontua.
- 46c) Merkataritza-baltzuen gastu eta sarreraren aurreikuspenak, baltzu horien kapital soziala toki-erakundearena bada oso-osorik.
- 46d) Aurreko hirurak batera.

47 HASIERAN ONARTURIKO AURREKONTU OROKORRA, PROBINTZIAKO ALDIZKARI OFIZIALEAN IRAGARKI BIDEZ ARGITARATU ONDOREN, ZENBAT EGUNETAN JARRIKO DA JENDAURREAN IKUSGAI INTERESDUNEK AZTERTU AHAL IZATEKO, ETA HALA BALEGOKIE, ERREKLAMAZIOAK AURKEZTEKO OSOKO BILKURAN?

- 47a) 20 egunez.
- 47b) 15 egunez.
- 47c) Hilabetez.
- 47d) Udal bakoitzean aldatzen da.

48 TOKI-ERAKUNDEEK TASAK ESKATU DITZAKETE ...

- 48a) Bide publikoaren garbiketagatik.
- 48b) Babes zibilagatik.
- 48c) Museo, erakusketa, liburutegi eta monumentuak bisitatzeagatik.
- 48d) Aurreko hiru erantzunak zuzenak dira.

49 UDALERRIKO AURREKONTUA PRESTATZEARI DAGOKIONEZ:

- 49a) Proiektua udaleko idazkariak prestatzen du.
- 49b) Aurrekontua hasiera batean onartu eta gero, eta probintziako aldizkari ofizialean iragarkia atera eta gero, jendaurrean jarriko da hamabost egunez.
- 49c) Udaltzak aurrekontua behin-betiko abenduaren 25a baino lehen onartu beharko du.
- 49d) Probintziako aldizkari ofizialera argitaratzeko bidaltzen den egunean sartuko da indarrean aurrekontua.

50 AURRERA ERAMAN BEHARREKO JARDUEREN ARABERA SAILKATZEN BADITUGU KREDITUAK, NOLAKO SAILAKAPENA IZANGO DUGU?

- 50a) Ekonomikoa.
- 50b) Organikoa.
- 50c) Funtzionala.
- 50d) Misto.

ORDEZKO GALDERAK

51 NOLA HASTEN DIRA ADMINISTRAZIO-PROZEDURAK?

- 51a) Ofizios beti.
- 51b) Ofizios edo interesdunaren eskariz.
- 51c) Ofizios inoiz ez.
- 51d) Ofizios, arduradunen aginduen ondorioz.

52 NOLA HARTZEN DIRA ESKUARKI UDALBATZEN ERABAKIAK?

- 52a) Gehiengo soilaz.
- 52b) Gehiengo erabatekoaz.
- 52c) Udalbatzako kideen izatezko kopuruaren 2/3en aldeko botoez.
- 52d) Aurreko guztiak okerrak dira.

53 NOIZ HARTZEN DA HERRIKIDE-IZAERA?

- 53a) Erroldan izena ematen den une berean.
- 53b) Erroldan izena eman eta handik 15 egunera, kontrako ebazpenik eman ez bada.
- 53c) Bizilekua udalerrian jartzen den unean.
- 53d) Edonola ere, beharrezkoa da udal-zergetan zorretan ez egotea.

54 KOTIZAZIO OINARRIA EZARTZERAKOAN, HILABETE BAT BAINO EPEMUGA HANDIAGOA DUTEN HARTUKIZUNAK

- 54a) Bere osotasunean hartuko dira kontuan.
- 54b) Ez dira kontuan hartuko.
- 54c) Hiru hilean behin hartuko dira kontuan.
- 54d) Urteko hamabi hilabeteetan zehar hainbanatuko dira.

55 ADMINISTRAZIO-EGINTZEN FORMA. ADIERAZI ZEIN DEN ZUZENA.

- 55a) Administrazio-egintzak idatziz emango dira, bitarteko elektronikoen bidez, non eta haien izaerak ez duen eskatzen adierazteko eta jasota geratzeko beste modu egokiagoren bat.
- 55b) Administrazio-egintzak bakarrik emango dira bitarteko elektronikoen bidez, interesdunak hala eskatzen duenean.
- 55c) Administrazio-egintzak paperezko euskarrian jaso behar dira beti.
- 55d) Administrazio-egintzak bakarrik emango dira bitarteko elektronikoen bidez, Administrazioak hala erabakitzen duenean.